



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Aldi baterako kontratazio-zerrenda sortzeko deialdia

Lanpostua: Informazioaren Kudeaketako teknikaria

GALDERAK

Bigarren ariketa
Denbora, gehienez: 120 min.

- Ez ireki esan arte.

1. kasua

Kirol Sailak zenbait eduki sortzeko eskatu dio Informazioaren Teknologien Sailari, udalaren web-gunean hiriko kirol jarduerak eta instalazioak eskaini eta sustatzeko helburuarekin.

Edukien Ataleko teknikaria zaren aldetik, proiektu hori garatzeko agindu dizute.

Jarraituko zenukeen lan metodologia azaldu eta eduki horiek web-gunean izango luketen egituraren proposamena lantzeko eskatzen dizugu.

2. kasua

Gaur, 2009ko uztailaren 17an, prentsaurrekoa egin da Gizartegintza Sailak sustatutako Haur eta Familientzako Tokiko Plana aurkezteko.

Edukien Ataleko teknikaria zaren aldetik, horri buruzko albistea euskaraz eta gaztelaniaz idazteko agindu dizute, udalaren web-gunean jartzeko.

Erreferentzia gisa Planaren publizitate liburuxka ematen dizugu.